

LUMA BERRIEN AZTARNAK
ALEXANDER MARTINEZ



Ilustrazioa
Kristina Fernandez

**Alexander
Martinez Iturria**

26 urteko irundarra, ar-
kitektura planoen ar-
teko bidea ibiltzen ari da
hitzekin dantzan.

Alexander Martinez

Hitzetan bizi

Igor doktoreak Vojnik erietxean egiten zuen lan, Ljubljana ospitale nagusian. Bera zen psikologiaz arduratzen zen bosgarren pabiloiko zuzendaria. Bere zereginak lasaiak ziren 1995eko sutearen aurretik. Ezbeharrak portu ondoko auzo osoa kiskali zuela jakina den arren, gutxiak dakeite sua Villette izeneko eroetxean hasi zenik. Milaka gaixo desagertu ziren, hiriburuko kale ilunenetan eta Ljubljana haurren amesgaiztoetan soilik agertuz. Sutearen ondorengo txikizioan bizirik aurkitu zituzten beste ehunka gaixo Vojnik ospitalera mugitu zituzten, Igor doktorearen pabiloira. Horrela ezagutu zuen Eduard.

Gau luze askotan oroitu zuen elkar ezagutu zuten martxoaren egun hura. Hotzikara batek astindu zuen Igor doktorearen gorputz osoa, gelan sartu bezain pronto. Eduard lurrean eserita zegoen hainbat koadernoren artean, leihotik ikus zitekeen errealitateari bizkarra emanda. Orriaren gainean bolaluma eginiko soinuak besterik ez zuten isiltasuna urratzen. Erizainak azaldu zionaren arabera, sutearen ondoren hogeita bosten bat libururi besarkatuta aurkitu zuten gaixoa; gero jakin zuten bere egunerokoak zirela. Ezer gutxi zekiten bere gaixotasunari buruz, ez baitzion inori jaramonik egiten, egun osoa igarotzen zuen egunerokoan idazten. Izena ere ezezaguna zitzaion, horregatik deitzen zioten Eduard (garai hartan Eslovenian ezaguna zen eguneroko moduko liburuko protagonista da Eduard). Igor doktorea gehien izutu zuena ez zen izan bere jatorriaz ezer ez jakitea, edota lurrean horrenbeste koadernoren artean ikustea. Beldurgarriena bere idazteko modua zen. Gogor heldutako boligrafoak abiadura handiz idazten zuen bitartean, bere hartatik ateratzeko zorrian zeuden begiek eskuaren dantza zoro sutua jarraitzen zuten. Bere begirada, ordea, orri zuritik haragoko mundu batean galduta zegoen.

Gaixoarekin hitz egiten saiatu zenean erizainaren erantzuna jaso zuen. «Ez ahalegindu, ez du batere hitz egiten. Ez dakigu entzun ere egiten duen. Egunduan osoan gauza bakarra egiten du. Idatzi». Igor doktoreak kemena bildu behar izan zuen Eduardengana hurbiltzeko, baina honen eskuetatik egunerokoa kentzerakoan ez zuen inongo eragozpenik jaso. Koadernoaren lehen orritik ireki eta irakurtzeko ekin zion. «Otsailaren 16a. Nire hogeita bosgarren urtebetetzea. Veronika agertu da gosariarekin. Kanpoan Celje guztia elurtua ageri den arren, Veronikaren irribarreak berotzen du gela».

Eduarden aurpegiari erreparatu zion Igor doktoreak; bistakoa zen gutxienez berrogei urte izango zituela. Hurrengo egunetan ulertu zuen bere gazte garaiko gertaerak idazten

zituela gaixoa egunerokoan. Esmatu eta bazkalaurtean, urte batzuk lehenago goiz hartan egin zuena idazten zuen detaile handiz. Gauza bera arratsaldean, bai eta afalondoren ere. Benetan kezkarria zen Eduarden jokamolde hura. Gau txarra izan zuela idazten zuenean, lokarturik ibiltzen zen egun osoan zehar. Neskarekin izandako errietaren bat esplikatzeko, haserre. Ez zituen pasatako gertaerak soilik idazten, berriz ere bizi zituen.

Egunak aurrera joan ahala denbora gehiago pasatzen zuen Igor doktoreak gaixoa behatuz. Orduak igarotzen zituen liburu artean gaixotasunari buruz ikertzen, edota Eduarden errutinaz idazten. Gauez ezin zuen lorik egin, eta egunez gaixoa besterik ez zeukan buruan; obsesionatuta bizi zen. Konturatu zenerako mediku eta gaixoaren zoritxarra berbera zen; biak bizi ziren koaderno horien eskualdean.

Sendabidea aurkitzea premiazkoa zitzaion, Eduard zoramenara eraman zuen bide berberean galduta aurretik. Udazken hasierako egun eguzkitsua batean, ospitaleko soto ilunean zegoela, amnesia kasuetan egunerokoak erabiltzen zituztela irakurri zuen Igor doktoreak. Villette eroetxeko medikuek bidali bazioten egunerokoa Eduardi han sartu zenean, zergatia aurkituko zuen egun horretaz egunerokoan idazten zuenean. Gaitz guztien arrazoia izateaz gain, esperantza bakarra ere bazen egunerokoa.

Eduardek ospitalean pasa zuen azken egunean mantu zuria batek estaltzen zuen Ljubljana. Garrasi hotz batekin esnatu zen bosgarren pabiloia. «Beste koaderno bat! Beste koaderno bat!». Errutinatik kanpo egiten zuen lehen gauza izanda, itxaropentsu egin zuen Igor doktoreak Eduarden logelarako bidea. Koaderno berri bat eskaini zionean, ezer esan gabe hartu eta idazteari ekin zion. Eduard bere hitzetan murgiltzen zen bitartean, Igor doktoreak gaixoa bukatu berri zuen liburuxka jaso zuen. Azken sarrerako datari erreparatu zion; otsailaren 15a. Eduarden armairura jo eta bertan ahaztutako eguneroko zaharrak atera zituen. Lehen orritik ireki eta ezaguna zuen gertaera irakurri zuen. Bihotza gelditu egin zitzaion bigarren bat hartu eta bere susmo ilunak bete zirenean. Egunerokoak pilatik banan-banan hartu eta irakurri egin zituen koaderno guztien lehen orriak, antsietatez hasieran, etsipenez gero. Poliki, Eduardengana jiratu eta erabiltzen ari zen eguneroko berria kendu zion eskuetatik. Ozen hasi zen esaten, irakurtzeko beharrik gabe: «Otsailaren 16a. Nire hogeita bosgarren urtebetetzea. Veronika agertu da gosariarekin. Kanpoan Celje guztia elurtua ageri den arren, Veronikaren irribarreak berotzen du gela».